

ALFA MICROFUSIÓN



(Santi Yaniz)

Gipuzkoa

Eibar

Erdigunea Casco urbano

Amaia Apraiz Sahagún

Sociedad Anónima Cooperativa Mercantil y de Producción de Armas de Fuego elkartea, Alfa, 1920ko urriaren 28an sortu zuten, suzko armak fabrikatzen aditua zen langile-talde baten ekimenez. Ekimena Alderdi Sozialistaren Herriko Etxetik atera zen, eta, hasiera batean, alderdiko kideei bakarrik zegoen zuzenduta. Lehendabiziko garaietan, errebolber zabukariak fabrikatzeari ekin zioten; denbora laburrean etekin handiak eta armagintzako merkatu-kuota handia eskuratu zituzten. Lehen administrazio-kontseilua zazpi langilek osatu zuten. Langileok sozietatearen sortzaileak ziren, eta hasierako akzioen % 75 beren esku zegoen: Joakin Telleria, presidentea; Eusebio Alustiza, idazkaria; Benito del Barrio, diruzaina; eta Florencio Alonso, Telesforo Okamika, Jose Barrutia eta Diego Osa kideak. Armagintzaren krisiak eraginda, Eibarko industria ugari bizikletak, bulegoko materiala eta tankerako kontsumo-ondasunak ekoizten hasi zen; hala, 1925etik aurrera, pixkanaka-pixkanaka, enpresa hau ere josteko makinak ekoizten hasi zen.

La Sociedad Anónima Cooperativa Mercantil y de Producción de Armas de Fuego, Alfa, se constituyó el 28 de octubre de 1920 como fruto de la voluntad de un grupo de trabajadores expertos en la fabricación de armas de fuego. La iniciativa partió de la Casa del Pueblo socialista, y estuvo en un principio destinada únicamente a los miembros del partido. Inicialmente se dedicaron a la fabricación de revólveres oscilantes, logrando en poco tiempo grandes beneficios y una alta cuota de mercado en el sector armero. El primer consejo de administración estuvo conformado por siete obreros, a la sazón fundadores de la sociedad, que detentaron la titularidad del 75% de las acciones iniciales: Joaquín Tellería, presidente; Eusebio Alustiza, secretario; Benito del Barrio, tesorero; y los vocales Florencio Alonso, Telesforo Ocamica, José Barrutia y Diego Osa. La crisis del sector armero, la misma que había llevado a otras industrias eibarresas a la producción de bienes de consumo como bicicletas o material de oficina, hizo que desde 1925 se produjera una paulatina reconversión de esta industria a la producción de máquinas de coser.

Hasiera batean, artikulu horren ekoizpena oso mugatua izan zen; esaterako, 1927an, 175 unitate baino ez zituzten egin (hainbat egile, 1957, 57). Hala ere, ekimen horrek sekulako arrakasta izan zuen, eta 1928an Estatuak enpresari 880 makina eskatu zizkion, emakumeen ikastetxe nazionalerako.

Arma ekoizteari 1932an behin betiko utzi zioten, eta, handik aurrera, Sociedad Anónima Cooperativa Alfa izena hartu zuen konpainiak. Gerra Zibilaren ostean, lantegia desegin eta makineria sakabanatu zuten; 1940an sortu zuten Máquinas de Coser Alfa SA enpresa, oraingoan ere elkarre-izaerari eutsita. Garai hartan, Europako abaguneari etekin handia atera zion, eta merkatu ia osoaren jabe egin zen; izan ere, Europako fabrikak, Singer enpresarenak batez ere, armagintzan aritzen ziren urte haietan (GARCÍA MANRIQUE, 1961, 42-45). Hortaz, fabrikatutako unitate kopurua biderkatzen joan zen, eta 1940. urtean 50.000 izatera iritsi ziren.

En un primer momento la producción de este artículo fue muy limitada, y en 1927 se reducía a 175 unidades (VV. AA., 1957, 57). Sin embargo, el éxito de esta iniciativa no se hizo esperar, y en 1928 el Estado solicita a la empresa 880 máquinas con destino a las escuelas nacionales de enseñanza para la mujer.

Abandonada definitivamente la producción de armas en 1932, la Compañía pasó a denominarse Sociedad Anónima Cooperativa Alfa. Tras la Guerra Civil se produce el desmantelamiento de la planta y la dispersión de la maquinaria, y no será hasta 1940 cuando, manteniendo su carácter asociativo, aparezca Máquinas de Coser Alfa S.A. En esta fecha se beneficiará de la coyuntura europea para adueñarse casi por completo del mercado, ya que las fábricas europeas, y sobre todo las de Singer, estaban en esos años dedicadas a la producción de armamento (GARCÍA MANRIQUE, 1961, 42, 45). Así, el número de unidades fabricadas se fue multiplicando, llegando a las 50.000 en ese año de 1940.



Eskailearen kaxa ikusgarria, enpresaren ikur bihurtu den osagaia. (Santi Yaniz)

La imponente caja de escalera se convierte en elemento icónico de la empresa. (Santi Yaniz)

Edonola ere, 1953. urtea erabakigarria izan zen. Lantegia nabarmen handitu zuten. Galdategia eta mikrofusio-planta (argizari galduzko doitasun-galdaketa) inauguratu zituzten, Espainiako lehena eta Europako lehenengoetakoa; AEBetako etxe baten lizentzia erabili zuen. Gainera, hiru Transfert makina handi abiarazi zituzten; makinok hainbat linea-estazio zeuzkaten, eta eragiketa kopuru handiak behar zituzten pieza garrantzitsuak mekanizatzeko erabiltzen ziren. Era honetako Espainiako lehen makinak izan ziren, eta, gainera, European josteko makinak fabrika batean ezartzen zituzten lehenak (IZA-GOÑOLA DE MIGUEL, 2005, 17-19); hain zuzen ere, automobil-fabriketan bakarrik erabiltzen baitzituzten ordura arte. Galdategiak eta mikrofusioak Alfaren beharrak asetzeaz gain, beste enpresa batzuen aginduak ere egiten zituzten.

1953 es un año fundamental en la historia de esta empresa. La factoría es objeto de grandes ampliaciones. Se inauguran la fundición y la planta de microfundición, una fundición de precisión a la cera perdida, la primera que se establecía en España y una de las primeras en Europa, que utilizó la licencia de una firma norteamericana. Además, se ponen en marcha tres grandes máquinas Transfert, con varias estaciones en línea donde se mecanizan piezas importantes que llevan consigo un gran número de operaciones; son las primeras de su categoría en España y las primeras que en Europa se instalaban en una fábrica de máquinas de coser (IZA-GOÑOLA DE MIGUEL, 2005, 17, 19), ya que hasta entonces sólo se habían utilizado en las fábricas de automóviles. La fundición y la microfundición no sólo cubrían las necesidades propias de Alfa, sino que también realizaban encargos para otras empresas.

Hala, mikrofusio-lantegiak garrantzi handia hartu zuen 70eko hamarkadan. Orduan, kudeatzaileek entitate independentea sortzea beharrezkotzat jo zuten, kooperatibatik banandu gabe. Asmoa ekoizpena ibilgailuen sektorerara zabaltzea zen, baita esparru berrietara ere; esaterako, arte-lanak galdatzera (APRAIZ; MARTÍNEZ MATÍA, 2008, 389). Ikuspegi horretatik, Alfa Microfusión planta berria egiteko orduan, eraikin adierazgarria altxatzea erabaki zuten, irudi ausarta eta dinamikoa zuena, ekoizpen-sistema aitzindarien bandera-ontzi bihur zedin. Eraikin adierazgarria sortzeko borondate horrek, itxura arkitektonikoa ez ezik kokapena ere baldintzatu zuen; hala, Bilbotik Eibarrerako sarbide nagusian altxatu zuten, ondo ikusteko moduko orubean. Eraikinaren inguruan lorategi txiki bat ipini zuten; elementu urbano horrek eraikinaren arkitektura-lerroak nabarmentzen ditu.

Eraikin berria Isasi aldean altxatu zuten, Alfa lantegiaren instalazioen alboan, Otaola hiribideko orube zabal batean. Miguel Ángel Lazpita arkitektoari agindu zioten 1975ean. Proiektatutako higiezina, funtsean, osotasun homogenea da, eta elkarrengandik erabat bereizita dauden hiru atal ditu (hasiera hartan, bulegoen eraikina, zerbitzuen eraikina eta fabrikazio-gunea ziren). Hiru atalak komunikatzeko korridore estali bat zegoen; hala, pertsonak lantegian barrera mugituz zitezkeen ekoizpen-guneen funtzionamendua oztopatu gabe.

En los años setenta la planta de microfusión había adquirido por sí misma gran importancia. En ese momento, la gerencia considera necesaria la creación de una entidad independiente que, sin despegarse de la Cooperativa, amplíe su producción hacia el sector de la automoción, pero también hacia nuevos campos, como la fundición de obras de arte (APRAIZ; MARTÍNEZ MATÍA, 2008, 389). Desde esa perspectiva, la nueva planta de Alfa Microfusión se concibe como un edificio representativo que, con una imagen atrevida y dinámica, se convierta en el buque insignia de los pioneros sistemas de producción. La representatividad del inmueble, por tanto, determina su aspecto arquitectónico, pero también su ubicación, en un solar bien visible desde el acceso principal a Eibar desde Bilbao. De ahí que el inmueble se rodee de un pequeño jardín, elemento de carácter urbano que subraya sus líneas arquitectónicas.

Este nuevo edificio, situado junto a las instalaciones de Alfa en Isasi, en un amplio solar de la Avenida Otaola, es encargado en 1975 al arquitecto Miguel Ángel Lazpita. Básicamente, el inmueble proyectado constituye un todo homogéneo, a partir de tres cuerpos completamente diferenciados entre sí, que originalmente se dedicaban a edificio de oficinas, edificio de servicios y edificio de fabricación. Estos tres cuerpos se comunicaban mediante un corredor cubierto, con el fin de facilitar los desplazamientos de personas por la fábrica sin interferir en el funcionamiento de las zonas de producción.



Otaola etorbideko fatxada, kofadun erliebe adierazkorra dituen. (Santi Yaniz)

Fachada a la avenida Otaola, con sus expresivos huecorrelieves. (Santi Yaniz)




Linea kurboak eta kontrakurboak bulego eraikinaren barruko eskailera plastikoa trenkatu eta laxatzen dute. Eskailera-kaxa itzela enpresaren ikono bihurtzen da. (Santi Yaniz)

Líneas curvas y contracurvas tensionan y distensionan la plástica escalera interior del edificio de oficinas. (Santi Yaniz)

Produktzio-fatxada zeharkatzen duen kofadun erliebeko seriea eta errepikapena. (Santi Yaniz)

Seriación y repetición en el huecorrelieve que recorre la fachada de producción. (Santi Yaniz)



Bulego-blokeak ixten du eraikina gehien ikusten den aldean; errezel-murru hautsi gisa dago antolatuta, profil dinamikoa du, eta gailurrean erremate poligonal dauka. Berreziki nabarmena da eskailera-zulo beiratzatu handia; monumentaltasun nabarmena eta protagonismo handia ditu, eraikinaren mutur batean dagoen aldetik. Bere garairako, abangoardiako diseinua ageri du. Oso tratamendu zaindua du, Bilbotik Eibarrera sartzen direnek eraikin hauxe ikusten baitute lehendabizi. Murruaren tokian beiratzatutako gainazala ageri du; engranaje moduan erpin ugarian hausten den eta sigi-saga egiten duen profildun erakusleho edo galeria erraldoia, arkitekturaren eta makinaren arteko bat egiteari erreferentzia eginez. Errezel-hormen berrinterpretazio garaikidea dela esango genuke; XIX. mendeko negutegietan eta lorategi tropikaletan inspiratutako bitarteko hori Mugimendu Modernoak bultzatutako fabrika-arkitekturaren ezaugarri nagusia izan zen, 20ko hamarkadatik aurrera. Arkitektura futuristaren eta espresionistaren zantzuak arintzeko, hormigoi armatzuko eskailera helikoidal handia ageri zaigu; hain zuzen ere, murrurik ez edukitzeari esker ikus daitekeena. Aipatutako eskailera bihurrikatuta igotzen da langileen joan-etorria agerian utziz; arkitektura makinistaren kontzeptuaren berrasmate berria da; hain zuzen, konstruktibismo sobietarra eta Walter Gropius eta Adolf

El bloque de oficinas, resuelto mediante un muro-cortina quebrado, de perfil dinámico, coronado por un remate poligonal, cierra el edificio en su parte más visible. Destaca especialmente la gran caja de escalera acristalada, de marcada monumentalidad y gran protagonismo al encontrarse en uno de los extremos del edificio, que se adelanta a su tiempo con un diseño vanguardista. Su tratamiento es muy cuidado, no en vano este cuerpo es la primera impresión que recibe el automobilista que llega a Eibar desde Bilbao. El muro se desintegra a favor de la superficie acristalada; un enorme escaparate o galería de perfil zigzagueante que se quiebra en multitud de vértices, a modo de engranaje, en clara alusión a la fusión arquitectura-máquina. Encontramos aquí una reinterpretación desde la contemporaneidad de los muros-cortina que, inspirados en los invernaderos y jardines tropicales decimonónicos, se habían convertido desde los años veinte en punta de lanza de la arquitectura fabril impulsada por el Movimiento Moderno. Esta evocación de la arquitectura futurista y expresionista se contrarresta con una potente escalera helicoidal de hormigón armado, visible precisamente gracias a la ausencia de muro, que asciende entorchada dejando a la vista el tránsito del personal, en una nueva reinención del concepto de arquitectura maquinista, con raíces en el

Meyer arkitektoen Werkbund fabrika eredugarria oinarri dituen. Era horretan, Alfa Microfusión eraikinaren fatxada beiratzatu ikusgarria plantaren aurkezpen-gutun bihurtzen da, baina baita Alfa lantegi osoarena ere (Isasiko lurretan kokaturik zegoen, eta gaur egun desagertuta dago). Arrazoi beragatik, atal honetan zeuden erakusketa-guneak; bai mikrofusioan lortutako produktuetarako, bai Alfa multzoan egindako guztietarako.

Bolumenari dagokionez, fabrikaziora zuzendutako atala nabarmentzen da gehien; errepide pareko fatxadak ia orube osoa hartzen du. Arrazoi hori bera dela-eta, Lazpitak arreata berezia eskaini zion hegoaldeko fatxadari, eta modu harmoniatsuan lotu zuen bulego-blokearekin. Ekoizpen-gunearen gardentasunarekin kontrajarririk, murru astunak ditu, trinkoak; kalitate plastiko handiko zulo-erliebean erabat grabatuta dagoela ematen du. Bulego-blokearen dinamismo egonkortu egiten da itxitura trinkoekin. Nolanahi ere, argi-troxaz leunduta ageri dira itxiturek; hormigoizko fatxada zauritu gabe urratzen duten troxaz, alegia. Ekoizpenaren sekretuak ezkututzen dituen hormigoi armatzuko fatxadak, eraikinari pisu espezifiko ematen dionak, kontraste egiten du eskailera-zuloaren aintasanarekin. Hormigoizko gailur batek lotzen ditu administrazio- eta ekoizpen-guneak, eta azken horren xafla galvanizatuzko erremateak, berriz, multzoaren tankera industrial eta teknologikoa sortzen laguntzen du.

Faktoriak, bestalde, bide-azpiegitura handia du, lantegiaren barruko funtzio industrial antolatzeke. Elementu hori ere nabarmentzekoa da proiektuaren barruan. Argi dago funtzionaltasunak eta eraginkortasunak bultzatu zutela multzoaren arkitektura- eta hirigintza-kontzepzioa; hain zuzen ere, industria-arkitekturaren muga tradizionalak gainditzen dituen tratamenduaren bidez. Miguel Angel Lazpitak eraikin ausartak egin zituen, eta materialaren adierazkortasuna da bere laneko protagonista eztabaida ezina: beira, hormigoia eta xafla galvanizatuak kontu handiz aukeratu zituen, bakoitza bere nolakotasunaren arabera aplikatzeko. Hala, kontraste egiten duten efektu kromatiko interesgarriak sortu zituen. Planteamenduaren modernotasun garbiak ez du eragozten industria-arkitekturarako egokiagoak diren erai-kuntza-sistemak erabiltzea; esate baterako, ekoizpen-gunea errematzeko erabilitako *shed* erako estalkia, fabrika-erai-kuntzako baliabide tradizionalen eta berrikuntza formalaren arteko sinbiosi ederra (kasu honetan, gainera, industriaaltasunaren obra kontzepzio tradizionaletik aldendu eta benetako egile-arkitektura bihurtzen da).

BIBLIOGRAFIA

APRAIZ SAHAGÚN, A.; MARTÍNEZ MATÍA, A., 2008 • <<http://www.artxibogipuzkoa.gipuzkoakultura.net/libros-e-liburuak/bekak-becas06.pdf>> [KONTSULTA 12/12/08] • CURTIS, W. J. R., 1981, 2007 • FERRER, M., 1968 • GARCÍA MANRIQUE, E., 1961 • IZA-GOÑOLA DE MIGUEL, F. J., 2005 • VV.AA., 1957 • VV.AA., 1970.

Constructivismo soviético y en la fábrica-modelo Werkbund de Walter Gropius y Adolf Meyer. De esta manera, la soberbia fachada acristalada de Alfa Microfusión se convierte en carta de presentación de la planta, pero también de toda la factoría Alfa, ya desaparecida, enclavada en los cercanos terrenos de Isasi. Por la misma razón este cuerpo cumplía una función representativa, albergando las zonas de exposición, tanto para los productos obtenidos en la microfusión como para todos los fabricados en el complejo Alfa.

El cuerpo destinado a fabricación es el elemento volumétricamente más destacado del conjunto; ocupa la casi totalidad del solar en su fachada emplazada junto a la carretera. Por esta razón, Lazpita presta especial interés a su fachada sur, enlazándola de forma armoniosa con el bloque de oficinas. En contraste con la diafanidad de éste, el muro de la zona de producción es pesado y de aspecto macizo, y aparece totalmente grabado en huecorrelieve de gran calidad plástica. Todo el dinamismo del bloque de oficinas se estatiza en sus cerramientos macizos, suavizados por fajas iluminarias, hendiduras que rasgan, sin herirla, la fachada de hormigón: la misma fachada que oculta los secretos de la producción, trabajada en *béton brut* que aporta peso específico en contraste con la liviana ascensión de la caja de escalera. Un coronamiento de hormigón unifica ambas zonas, administrativa y de producción, mientras que el remate de chapa galvanizada de esta última contribuye a crear la imagen industrial y tecnológica del conjunto.

Por otra parte, la factoría tiene una importante infraestructura vial que organiza la función industrial dentro de la fábrica, otro elemento a destacar dentro del proyecto. La funcionalidad y operatividad son claramente los motores que impulsaron su concepción arquitectónica y urbanística, con un tratamiento que sobrepasa los límites tradicionales de la arquitectura industrial. Miguel Ángel Lazpita es autor de edificios atrevidos, en los que la expresividad del material se hace protagonista indiscutible: así, el cristal, el hormigón, la chapa galvanizada son elegidos de forma cuidadosa para ser aplicados según su naturaleza, creando interesantes efectos cromáticos de contraste. La abierta modernidad de este planteamiento no es óbice para el empleo de los sistemas constructivos más adecuados a la arquitectura industrial, como la cubierta en *shed* en que remata la zona de producción, magnífica simbiosis entre los recursos tradicionales de la construcción fabril y una innovación formal que, en este caso, se aleja de la tradicional concepción de lo industrial como obra anónima para convertirse en auténtica arquitectura de autor.

BIBLIOGRAFÍA

APRAIZ SAHAGÚN, A.; MARTÍNEZ MATÍA, A., 2008 • <<http://www.artxibogipuzkoa.gipuzkoakultura.net/libros-e-liburuak/bekak-becas06.pdf>> [CONSULTA 12/12/08] • CURTIS, W. J. R., 1981, 2007 • FERRER, M., 1968 • GARCÍA MANRIQUE, E., 1961 • IZA-GOÑOLA DE MIGUEL, F. J., 2005 • VV.AA., 1957 • VV.AA., 1970.